

ERAKUNDEAREN DATUAK

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	CodeSyntax S.L.
2. Sektorea:	<ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza• Industria• Osasuna• Zerbitzuak• Administrazio publikoa• Gizarte ekintza
3. Langile kopurua:	23
4. Webgunea:	https://www.codesyntax.com/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Internet eta software aplikazioak egiten ditugu Software librean oinarrituta.</p> <p>Hauek dira CodeSyntaxen lan arlo nagusiak:</p> <p>Aplikazioen garapena:</p> <ul style="list-style-type: none">- Administrazio publikoarentzat- erakunde eta enpresentzat- elkarte eta bestelakoentzat <p>Interneteko ekintza eta IKTei babes eta sustengu jarraia:</p> <ul style="list-style-type: none">- Posizionamendua- SEO SEM- Online marketina- Interneteko estrategia- Interneteko edukiak- Neurritan egindako proiektuak <p>IKTetan aholkularitza eta formazioa</p> <p>20 urteko ibilbidean esperientzia zabala pilatu dugu aplikazioak eta proiektuak abian jartzen administrazio, hezkuntza, unibertsitate, erakunde eta enpresetan. Baita gure proiektu propioak egiten ere, noski.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	
Helbide elektronikoa:	
Telefonoa:	

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	ERP eleanitza, eta kontaktuen eleaniztasuna ere kontuan hartzen duena
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>CodeSyntax-ek Odoo izeneko ERP programa bat darabil bere kudeaketarako. Software libreko azpiegitura da Odoo, eta euskaratuta dago. ERP batek irismen zabal bat izan dezake: bezeroen eta hornitzaileen datu-baseak, proiektuen jarraipena, orduen asignazioa, gastu eta dieten kontrola, fakturen igorketa...</p> <p>Enpresaren kudeaketarako hainbat modulu ditu Odook, eta horietako zenbait erabiltzen ditugu CodeSyntax-en, euskaraz. CodeSyntax-en langile guztiok dugu sarbidea bertara (baimen eta funtzioen arabera), eta denek euskaraz dakusate eta erabiltzen dute sistema.</p> <p>Berez praktika ona deritzogu ERP bat euskaraz erabiltzeari, baina badu Odoo instantzia honek detaile bat baliagarri zaiguna kanpora begira ere: bezero eta hornitzaileen fitxa betetzen dugunean, haren hizkuntza lehentasuna markatzen ahal dugu, eta euskara aukeretako bat da. Momentu horretatik aurrera, ERP-ak bezero horrentzat sortzen duen dokumentazioa, automatikoki, lehenetsitako hizkuntzan gertatzen da. Dela aurrekontu proposamen bat edo faktura, euskarazko lehentasuna markatua duenari, euskaraz sortzen zaio dokumentua. Hortaz, beste enpresa eta erakunde batzuen hizkuntza-politikekin bat egiteko moduan gaude, bereziki euskarazko jarduna hobesten dutenekin.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

[Odoo ERP-a, euskarazko konfigurazioa](#)







Erosketak ▾ Aholkularia ▾ Txostenak ▾ Konfigurazioa ▾

a

- Business Intelligence
- Fakturak
- Sarrera analitikoak
- PDF Reports
- Sale/Purchase Journal
- Partner Ledger
- General Ledger

13 Invoices

Odo o ingelesez izanda ere, euskara markatu dakioko bezero bati hizkuntza gisa:

 0 Meetings	 2 Activities	 25186,40€ Invoiced
 18 Sales	 12 Kontu analitik...	 1 Tasks

Phone 943780411

Mobile

Fax

Email

Language Basque / Euskara

Hau da adibide bat ERPak sortzen duen proposamen PDF batena, bidalketa automatikoz zuzendu dakiokena bezero bati. Kasu honetan, bezeroaren hizkuntza hobespena Gaztelania da, eta PDFa osatzen da gazteleraz:

CodeSyntax

CodeSyntax
Azitaingo industrialdea
20600 Eibar

Tel: (+34) 943 82 17 80
info@codesyntax.com

CIF: ESB20696092

Propuesta	Fecha	TIN
2023_01743	2023/09/22	ESP2006300D

Propuesta:

Cantidad:

Anotaciones:

- A este presupuesto hay que sumarle el correspondiente IVA
- Este presupuesto tiene una validez de 6 meses
- Para aceptar este presupuesto hágaselo saber al responsable del proyecto por mail o teléfono

4.325,50 €

Baina bezeroaren kudeaketan, hizkuntza hobespena euskara jartzen badiogu, ERPak euskarazko PDF bat sortu eta bidaliko dio:

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

CodeSyntax

CodeSyntax
Azitaingo industrialdea
20600 Eibar

Tel: (+34) 943 82 17 80
info@codesyntax.com

IFK: ESB20696092



Proposamena	Data	IFK
2023_01743	2023/09/22	ESP2006300D

Proposamena:

Kopurua:

Oharra(k):

- Aurrekontuari dagokion BEZ-a gehitu behar zaio
- Aurrekontu honen balioa 6 hilabetekoa da
- Aurrekontu hau onartzeko jakinarazi e-postaz edo telefonoz proiektuaren arduradunari

4325,50 €

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA